

Donostia, 2018ko abuztuaren 1a

**95/18 PRENTSA OHARRA**  
**DBUS ZERBITZUAK-DONOSTIA KLASIKOA**  
**2018KO ABUZTUAREN 4A**

**Abuztuaren 4an**, larunbatean, Donostia Klasikoa txirrindulari lasterketa egingo da gure hirian.

Trafiko etenak **abuztuaren 3an hasiko dira, ostiralean, 17:00etatik 18:00etara arte Legazpi kaletik Boulevardeko bidea itxita egongo baita garraio publikorako**. Boulevardeko geltokiak lekualdatuko dira:

- 5, 21, 25, 26 eta 28 lineak: Okendo kaleko ohiko geltokietan egingo dute geldialdia.
- 13 linea: Boulevardeko ohiko geltokian egingo du geldialdia.
- 8 eta 42 lineak: Legazpi kalera (linea hauek geltoki honetan egingo dute geldialdia zerbitzua bukatu arte).
- 9 eta 29 lineak: Okendo kalea 3ra.
- 31 linea: Gipuzkoa plazara aldatuko da (14 linearen geltokia).

**ABUZTUAREN 4A, LARUNBATA**

Lasterketa dela eta, Boulevardeko geltokiak kendu egingo dira eta hona eramango dira:

**8:00etatik 15:30era (gutxi gorabehera):**

- **5-Benta Berri, 25-Benta Berri-Añorga:**  
Azkeneko geltokia Okendo kalean edukiko dute.  
**11:15etatik 11:45etara** gutxi gorabehera Londres eta La Perla geltokiak kenduko dira eta Urbieta 6ra eramango dira.
- **21-Mutualitateak-Anoeta, 26-Amara-Martutene, 28-Amara-Ospitaleak:**  
Azkeneko geltokia Okendo kalean edukiko dute.
- **16-Igeldo, 18-Seminarioa, 19-Aiete-Bera Bera:**  
Gipuzkoa plazan duten azkeneko geltokia Okendo kalera pasatuko da.  
**11:15etatik 11:45etara** gutxi gorabehera Zurriola eta La Perla geltokiak kenduko dira eta Urbieta 6ra eramango dira.
- **13-Altza:**  
Azkeneko geltokia Idiakez kalean edukiko du (Taxi geltokia). Zurriolako geltokia Colón pasealekura eramango da eta Askatasunaren hiribideko 21ekoa Idiakez kalera.
- **8-Gros-Intxaurrondo, 29-Hego Intxaurrondo Sur, 42-Aldapa-Egia:**  
Azkeneko geltokia Idiakez kalean edukiko du (Taxi geltokia). Zurriolako geltokia Colón pasealekura eramango da eta Askatasunaren Hiribideko 21ekoa Idiakez kalera.

- **9-Egia-Intxaurreondo:**  
Azkeneko geltokia Idiakez kalean edukiko du (Taxi geltokia). Askatasunaren Hiribideko geltokiak Idiakez kalera eramango dira.
- **14-Bidebieta:**  
Ez da bere ibilbidea aldatuko, ez eta bere azkeneko geltokia ere.
- **37-Rodil-Zorroaga:**  
Mendigain alderantz: Zurriolako geltokia Colón pasealekura eramango da.
- **31-Intx.-Ospitaleak-Altza:**  
Aiete-Ospitaleak alderantz: Zurriolako geltokia Colón pasealekura eramango da eta Boulevardekoa Gipuzkoa plazara (L-14).

### **15:30etik 18:00etara (gutxi gorabehera):**

Denbora tarte horretan, lasterketa hirira heldu eta Antiguotik eta Igeldotik pasatuko dela eta, Buenavistan eta Jaialain dauden hiriko autobusen geltokiek ez dute funtzionatuko, ez Erdialderantz ez Irun alderantz.

- **13-Altza:**
  - Erdialderantz: Herreratik Jaialaira arteko geltokiak Renfek Herreran duen tren geralekura edo Zubiaurre pasealekura (8L eta 29L) eramango dira.
  - Altza alderantz: Jaialaitik Mirakruzeko gainera arteko geltokiak Jaialaira eramango dira. Eta Mirakruzeko Gainetik Herrerara artekoak Herrera pasealekua 20ra eramango dira.
- **13-Altza-Buenavista:**
  - Erdialderantz: Kasareseko eta Escalerillaseko geltokiek ez dute zerbitzurik izango. Ikusi 13 linea.
  - Altza alderantz: 13 linearen ibilbide bera.
- **24-Altza-Gros-Antiguo:**  
Erdialderantz: Herreratik Jaialaira arteko geltokiak Renfek Herreran duen tren geralekura edo Ategorrieta 31-ra eramango dira.
- **27-Altza-Intx.-Antiguo-Gros:**
  - Altza alderantz: Mirakruz kaletik 13 linearen ibilbide bera.
  - Antiguo alderantz: Zumalakarregi Hiribidean eta Tolosa hiribidean dauden geltokiak Matia kalera eta Zarautz Hiribidera pasatuko dira.
- **14-Bidebieta:**
  - Erdialderantz: Elosegi 223ko geltokia Juan XXIII kalera eramango da, eta Mirakruz Gainetik Jaialaira artekoak Zubiaurre pasealekura (8L eta 29L).
  - Bidebieta alderantz: Jaialaitik Kontadoresera arteko geltokiak Jaialaira eramango dira.
- **5-Benta Berri, 25-Benta Berri-Añorga:**  
Azkeneko geltokia Artzain Onean izango dute. Okendo, Boulevard, Zubieta eta San Martin 57 kaleetako geltokiak Artzain Onera eramango dira. Zumalakarregi hiribidean

eta Tolosa hiribidean dauden geltokiak Matia kalera eta Zarautz hiribidera pasatuko dira. Ondarreta geltokia Esklabak geltokira eramango da.

- **16-Igeldo:**  
Azken zerbitzua Kanpin aldera 15:25ean izango da, eta Erdialderantz, berriz, 16:00etan. Zerbitzurik gabe lasterketa amaitu arte.
- **18-Seminarioa:**  
Azkeneko geltokia Artzain Onean izango dute. Okendo, Gipuzkoa Plaza, Zubieta eta San Martin 57 kaleetako geltokiak Artzain Onera eramango dira.
- **19-Aiete-Bera Bera:**  
-Aiete alderantz: Gipuzkoa Plaza eta Urbietako 6ko geltokiak San Bartolome 10era eramango dira.
- **23-Errondo-Puio, 32-Puio-Errondo:**  
- Aiete alderantz: Urbietako 6ko geltokia Urbietako 38ra eramango da.
- **33-Larratxo-Intx.-Antiguo-Berio:**  
15:30etik aurrera ez da ez Berion ez Igaran sartuko.  
-Antiguo alderantz: Askatasunaren hiribideko geltokia Colón pasealekura eta Easo kalera (Aldapetarekin duen kantoia) eramango da. Zumalakarregi Hiribidean eta Tolosa Hiribidean daudenak Matia kalera eta Zarautz hiribidera.  
  
-Larratxo alderantz: San Martin 57, Easo kalea eta Askatasunaren Hiribidea 21 geltokiak Artzain Onera eta Santa Katalina Zubira (behin-behineko zutoina) eramango dira.
- **35-Arriola-Antiguo-Aiete-Ospitaleak:**  
15:30etatik aurrera lasterketa amaitu arte ez da Arriolara igoko. Zumalakarregi Hiribidean eta Tolosa Hiribidean dauden geltokiak Matia kalera eta Zarautz Hiribidera pasatuko dira.
- **21-Mutualitateak-Anoeta, 26-Amara-Martutene, 28-Amara-Ospitaleak:**  
Azkeneko geltokia Urbietako 30ean izango dute. Okendo kaleko, Boulevardeko eta Urbietako kaleko 6-12 zenbakietako geltokiak Urbietako 30era (behin-behineko zutoina) eramango dira.
- **29-Hego Intxaurrondo Sur:**  
Azkeneko geltokia Pinudi plazan izango dute. Zurriolako geltokia Colón pasealekura pasatuko da eta Boulevardekoa eta Askatasunaren Hiribideko 21ekoa Pinudi plazara.
- **8-Gros-Intxaurrondo:**  
Azkeneko geltokia Mirakruz-Pinudi plazan izango dute. Boulevardetik Askatasunaren Hiribidea, Zurriola eta Nafarroa Hiribidera arteko geltokiak Mirakruz eta Jaialaira eramango dira.
- **9-Egia-Intxaurrondo:**  
Azkeneko geltokia Santa Katalina Zubian izango du. Boulevardeko eta Askatasunaren Hiribideko geltokiak Santa Katalina Zubira eramango dira (behin-behineko zutoina).

- **42-Aldapa-Egia:**  
Azkeneko geltokia Santa Katalina Zubian izango du. Zurriolako, Boulevardeko eta Askatasunaren Hiribideko geltokiak Colón pasealekura eta Santa Catalina Zubira eramango dira.
- **17-Gros-Amara-Miramon:**  
Azkeneko geltokia Ategorrieta 31n izango du. Zurriolako, Iparragirreko eta Nafarroa Hiribideko geltokiak Mirakruz eta Ategorrieta 31ra lekualdatuko dira.
- **31-Intx.-Ospitaleak-Altza:**
  - Intxaurrondo alderantz: Easo kaleko eta Askatasunaren Hiribideko geltokiak Artzain Onera eta Santa Katalina Zubira (behin-behineko zutoina) eramango dira.
  - Aiete alderantz: Mirakruz Gaineko geltokiak Zubiaurre pasealekura eramango dira (8 eta 29 lineen geldialdiak). Nafarroa Hiribideko eta Zurriolako geltokiak Colón pasealekura eramango dira, eta Boulevardekoa eta Urbieta 6koa Easo kalera (behin-behineko zutoina, Aldapetara jiratu aurretik).
- **36-San Roke-Aldakonea:**
  - Matia alderantz: Askatasunaren Hiribideko eta Euskadi plazako geltokiak Iparreko tren geltokira eramango dira eta Urbieta 6koa Urbieta 58ra.
  - Aldakonea alderantz: Easo kaleko eta Askatasunaren Hiribideko geltokiak San Martin 25era eta Santa Katalina Zubira (behin-behineko zutoina) eramango dira.
- **37-Rodil-Zorroaga:**
  - Lasterketa Ategorrietatik pasatuko dela eta, ezin izango du Rodiletik ibilbiderik egin. Rodileko geltokiak Ategorrieta 31ra eramango dira.
  - Mendigain alderantz: Mariaren Bihotzeko, Zurriolako, eta Gipuzkoa plazako geltokiak Galtzada Nagusira eta Colón pasealekura eramango dira.
  - Ategorrieta-Rodil alderantz: Easo 9ko eta Askatasunaren hiribideko geltokiak San Martin 25era eta Santa Katalina Zubira (behin-behineko zutoina) eramango dira.
- **38-Trintxerpe-Molinao:**
  - Eskalantegi eta Molinao zerbitzurik gabe geratuko dira.
  - Molinao alderantz: Eskalantegiko eta Molinaoko geltokiak Berrako biribilgunera eramango dira.
  - Trintxerpe alderantz: Herrerako eta Gaiztarroko geltokiak kendu egingo dira.
- **41-Gros-Egia-Martutene:**
  - Egia-Martutene alderantz: Zurriolako, Iparragirreko eta Nafarroa hiribideko geltokiak Miracruz eta Jaialaira eramango dira. Fernando Sasiaingo geltokia Fernando Sasiainera-Kotxetegietara eramango da.
- **45-Renfe-Bus Geltokiak-Antiguo-Aiete:**  
Askatasunaren Hiribidea 18, Londres Hotela eta La Perla geltokia Easo kaleak San Bartolome kalearekin duen kale-kantoira eramango dira. San Martin 57 geltokia Artzain Onera eramango da. Zumalakarregiko eta Tolosa Hiribideko geltokiak Matia kalera eta Zarautz Hiribidera eramango dira. Ondarreta geltokia Esklabak geltokira eramango da.

➤ **46-Morlans:**

Bizkaia P.- Mundaiz Zubia, Gernikako Arbola, M<sup>a</sup> Cristina Zubia, Askatasunaren Hiribidea 20 eta Urbieta 6 geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira eta Urbieta 38ra eramango dira.

**18:00etatik 20:00etara (gutxi gorabehera):**

Boulevard itxita egongo da baina gainontzeko kaleak trafikora irekita egongo dira. Ondorioz, autobus lineen bukaera geltokiak, 8:00etatik 15:30era izan diren geltoki berdinak izango dira.

Era berean, **15:30etik 17:30era** gutxi gorabehera **TB6 Taxibus Uliak** ez du zerbitzurik izango.

Informazio gehiagorako 943 000 200 telefono zenbakira deitu edo [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) web orrian begiratu.

